

# Zuzenketarako koaderno

2  
0  
1  
3  
/  
1  
4

**EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA**

**LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA**

**MATEMATIKAKO GAITASUNA**

Izen-deiturak: .....

Ikastetxea: .....

Ikastaldea/Ikasgela: .....

Herria: .....

Eguna: .....



## Jarraibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

**Zenbat dira  $2 + 5$ ?**

- A. 2
- B. 6
- C. 7
- D. 11

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu X batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

**Zenbat dira  $2 + 5$ ?**

- A. 2
- B. 6
- B. 7
- C. 11

Beste galdera batzuetan, aldiz, puntuekin adierazitako tartean erantzuna osatzeko eskatuko dizute:

**Esan zenbat angelu eta zenbat alde dituen triangelu batek.**

.....



**Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.**

# Musika gela


Eskolako musika gelan  
hainbat musika tresna daude:  
txirulak, xilofonoak,  
panderetak ...

Musika notak idazteko  
pentagrama arbelean  
marratzua dago. Gelako

hormak apaindurik daude hainbat musikari ezagunen  
erretratuekin (Pablo Sarasate, Beethoven, Hilarión Eslava...).



1. Pentagrama musikako notak eta ikurrak  
idazteko erabiltzen den tokia da, eta  
osatzen duten 5 lerroak dira...



- A. bertikalak eta paraleloak
- B. bertikalak eta perpendikularrak
- C. horizontalak eta paraleloak
- D. horizontalak eta perpendikularrak

2. Begiratu arretaz irudietan agertzen diren  
musika tresnak. Ze gorputz geometriko  
irudikatzen dituzte?

- A. Laukizuzena eta zirkulua
- B. Laukizuzena eta zilindroa
- C. Prisma eta zilindroa
- D. Prisma eta zirkulua



3. Seigarren mailako ikasleek 25 minutu iraun duen kontzertu bat eman dute. Amaiera 16:18an izan da. Zein ordutan hasi da kontzertua?

- A. 15:53 ordutan
- B. 15:43 ordutan
- C. 15:33 ordutan
- D. 15:23 ordutan



4. Musika irakasleak musika-tresna batzuk erosi ditu: teklatu bat 380 €tan, gitarra bat 245 €tan, eta 6 xilofono bakoitza 87 €tan. Zenbat ordaindu du guztira?

- A. 712 €
- B. 902 €
- C. 1.147 €
- D. 1.347 €


5. Xilofono bat egurtxoekin egindako musika tresna bat da, Zenbat egurtxo ditu irudian ikusten den xilofonoak?



.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	44

6. Laugarren mailako talde bat musika gelan hainbat musika tresna jotzen aritu da. Behatu ondorengo grafikoa eta taula osatu.



	Xilofonoa	Txirula	Marakak	Pandereta	Dunbala
Ikasleak	5	8	7	4	1

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	3 erantzun zuzen edo gutxiago.
1	4 erantzun zuzen eta oker bat (edo osatu gabeko bat).
2	5 erantzun zuzen.

7. Omar 4. mailako ikasle bat da eta musika zalea da. Zenbat neurtzen du Omar jotzen ari den txirulak gutxi gora behera?

- A. 20 mm
- B. 30 mm
- C. 20 cm
- D. 30 cm



8. Martín Melitón Pablo de Sarasate y Navascués, Pablo Sarasate (Iruña, 1844ko martxoaren 10a – Biarritz, 1908ko irailaren 20a) biolinista eta musikagile oso ospetsua izan zen. Zenbat urtez bizitu zen Pablo Sarasate?

.....



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	<p>Cualquier respuesta que señala que Pablo Sarasate vivió 64 años. Por ejemplo:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 64 años</li> <li>- 64,5 años</li> <li>- 64 años y 6 meses</li> <li>- 64 años, 6 meses y 10 días</li> <li>- 64 años y algunos meses más</li> <li>- ...</li> </ul> <p>La respuesta se dará por correcta cuando el alumno/a señala correctamente el nº de años (64) y se equivoca en el nº de meses y/o días.</p>

9. Gelako apalategian, zenbat liburu, CD eta DVD daude guztira?


- A. 112
- B. 144
- C. 160
- D. 248



- 48 liburu daude
- DVD kopurua liburu kopuruaren herena da
- CD kopurua liburu kopuruaren bikoitza da.

10. Irakasleak bi bozgorailu posizio simetrikoan jarri ditu. Gorriz adierazia dagoen simetria-ardatza kontuan hartuz, zein da irakasleak jarri duen bozgorailu-bikotea?

- A. 1. irudikoa
- B. 2. irudikoa
- C. 3. irudikoa
- D. 4. irudikoa





11. Musikako irakasleak 25 ikasleko hiru talde, 23 ikasleko lau talde eta 24 ikasleko bost talde ditu. Zenbat ikasle ditu guztira?

Idatzi ematen dituzun urratsak eta soluzioa.

$$25 \times 3 = 75$$

$$23 \times 4 = 92$$

$$24 \times 5 = 120$$

$$\text{Guztira: } 75 + 92 + 120 = 287$$



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra eta planteamendu okerra edo osatu gabea.
1	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasleak erantzun zuzena eman du (287), baina ez du behar adina urratsik idatzi edo ez du urratsik idatzi.</li> <li>Ikasleak planteamendu osoa eta zuzena egin du, baina ez du erantzun zuzena eman kalkuluetan akats bakarra egin duelako eta ez delako emaitza zuzenera iritsi.</li> </ul>
2	Ikasleak planteamendu osoa eta zuzena egin du, eta erantzun zuzena eman du (287).

# Bertizko parkea

Eskolako haur talde bat Bertizko parkeko Naturaren Interpretazio Zentroa eta Lorategi historikoa bisitatzera joan da. Hamaiketakoa egiten ari ziren bitartean mendizale batzuk ikusi dituzte.



Parketik hurbil Bidasoa ibaia pasatzen da. Bidasoa ibaian amuarrainak eta izokinak daude.

12. Mendizale batek Parkean dauden bi bidexka osoak oinez egin ditu, eta guztira 25 km egin ditu.

Bidexkaren izena	Ibilbidea guztira (km)	Denbora (Orduak)
Aizkolegi	22	7
Plazazelai	16	5
Iturburua	6	2
Suspiro	9	3
Irretarazu	11	4




Zeintzuk dira mendizale horrek egin dituen bi bidexkak? Plazazelai eta Suspiro .....

Zenbat denboran ibili da oinez? ..... 8 ordu.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Bi erantzunak okerrak edo osatu gabeak dira.
1	Ikasleak galdera bati zuzen erantzuten dio eta besteari ez.
2	Ikasleak emandako 2 erantzunak zuzenak dira (Plazazelai eta Suspiro / oinez 8 ordu egin ditu)


13. *Iturburua* bidexkak 6 km ditu, eta ikasle taldeak  $\frac{1}{3}$  egin du. Zenbat km falta zaie bidexka osoa egiteko?

- A. 1 km
- B. 2 km
- C. 3 km
- D. 4 km



14. Parkeko iturri batek 78 litro isurtzen du minutuko. Bertizko Parkean egon garen 3 ordutan, ze ur kantitate isuri du?

- A. 234 litro
- B. 1.404 litro
- C. 4.680 litro
- D. 14.040 litro



15. Parkeko Naturaren Interpretazio Zentrorako 9 informazio-panel erosi dituzte, osotara 1.305 €-tan. Panel guztiek berdin balio dutela kontuan harturik, zenbat balio du panel bakoitzak?

Panel bakoitzaren balioa:  $\frac{1.305}{9} = 145 \text{ €}$


.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 145 €</li> <li>• 145</li> </ul>

16. Bisitari batek Parkean pasa duen denboraren  $\frac{3}{4}$  Naturaren Interpretazio

Zentroan pasa du, eta gainontzeko denbora bazkaltzen. Zein irudik adierazten du?

- A. 1. irudiak
- B. 2. irudiak
- C. 3. irudiak
- D. 4. irudiak




17. Asma ezazu Bidasoa ibaiaren luzera, ondoko datuak kontuan hartuz:

- 2 zifrako zenbakia da.
- 2 zifren batura 15 da.
- Bi zifrak ez dira elkarren segidakoak (ez dira kontsekutiboak).
- Asmatu nahi dugun zenbakia bakoitia da.

6
9

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	69


18. Begira ezazu arretaz zenbakien zuzena, eta idatz ezazu Bidasoa ibaian arrantzatu den B izokinaren pisua.



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	6700 g

19. Arrantzale batek irudian agertzen diren amuarrainak arrantzatu ditu. Amuarrain handienak 300 gramo pisatzen dituela kontuan hartuz, zein izanen ote da irudian agertzen diren amuarrain guztien gutxi gorabeherako pisua?

- A. Kilogramo 1 baino gutxiago.
- B. 1 eta 3 kilogramoen artean.
- C. 3 kilogramo baino gehiago eta 4 baino gutxiago.
- D. 4 kilogramo edo gehiago.



20. Zein irudi geometriko agertzen dira ondoko informazio-txartelean?

- A. Zirkulua, zirkunferentzia eta karratua
- B. Zirkulua, zirkunferentzia eta laukizuzena
- C. Zirkulua, karratua eta laukizuzena.
- D. Zirkunferentzia, karratua eta laukizuzena.



21. Nolakoa da eskuineko bi kanaberek sortzen duten angelua?

- A. zorrotza
- B. zuzena
- C. kamutsa
- D. laua




# Herriko denda

Irati eta bere aita herriko dendara erosketak egitera joan dira.

Dendan frutak, barazkiak, esnea, gailetak eta eskualdeko hainbat produktu saltzen da.



22. Irati eta bere aita arratsaldeko seiak hogeita bost gutxitan joan dira dendara erosketak egitera. Adieraz ezazu ordu hori ondorengo erlojuetan:



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erloju batean erantzun zuzena adierazten du eta bestean ez.
2	Bi erlojuetan erantzun zuzena adierazten du: 17:35 erloju digitalean eta orratzak ongi kokaturik bestean (orduak adierazten dituen orratza 5 eta 6 zenbakien artean, minutuak adierazten dituen orratza 7an)

23. Hamabi laranja erosi dituzte, eta laranja bakoitzak  $\frac{1}{4}$  kg pisatzen du. Zenbat laranja kilogramo erosi dituzte?



1. aukera:

4 laranjek 1 kg pisatzen dute, 12 laranjek 3 kg pisatzen dute.

2. aukera:

$$0,25 \times 12 = 3 \text{ kg}$$

3. aukera:

$$\frac{1}{4} \times 12 = 3$$

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 3</li> <li>• 3 kg</li> </ul> <p>Ez da beharrezkoa planteamendua edo eragiketak idaztea.</p>

24. Erosketak 100 euro baino gutxiago balio du. Ordaintzeko aitak lau billete eman dizkio dendariari, denak desberdinak, eta dendariak 2 euro itzuli dizkio.



¿Ze billete eman dizkio aitak erosketa ordaintzeko?

	Bai	Ez
5 € - koa	X	
10 € - koa	X	
20 € - koa	X	
50 € - koa	X	
100 € - koa		X



Zenbat diru eman dio aitak dendariari, erosketa ordaintzeko? ....85€.....

Zenbat kosta zaie erosketa?..... 83€ .....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Hiru erantzunak okerrak edo osatu gabeak dira.
1	Ikasleak galdera bakar bati erantzuten dio zuzen.
2	Ikasleak bi galderari soilik erantzuten die zuzen.
3	Ikasleak 3 galderari zuzen erantzuten die: 1. Erosketa ordaintzeko aitak emandako billeteak hauek dira: 5€, 10€, 20€ eta 50€ 2. Erosketa ordaintzeko dendariari emandako dirua: 85 € 3. Erosketa kosta zaie: 83 €

25. Erositako esne kutxak barra-kodea du. Ze zenbaki osatzen dute azken sei zifrek?

- A. Ehun eta zazpi mila laurehun eta zortzi.
- B. Ehun eta zazpi mila laurehun eta laurogei.
- C. Ehun eta hirurogeita hamar mila laurehun eta zortzi.
- D. Ehun eta hirurogeita hamar mila laurehun eta laurogei.



26. Dendariak bandeja bateko gailetak banatu zituen Irati, bere aita eta beste 4 pertsonaren artean. Bakoitzari 3 gaileta eman eta bandejan 2 geratu ziren. Zenbat gaileta zeuden bandejan?


- A. 15 gaileta
- B. 17 gaileta
- C. 18 gaileta
- D. 20 gaileta



27. Irati jolasean ibili da bere kalkulagailuarekin eta ondoko eragiketa egin du:

$$28 \times 9 = 252$$

Idatz itzazu ordenean Iratik zanpatu dituen bost tekklak:



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erantzun zuzena (ordenean): 2 8 x 9 =

28. Herriko abeltzainak 200 arrautza ekarri ditu dendara. Dendariak arrautza guztiak dozena erdiko arrautza-kaxatan kokatu ditu, 14 izan ezik, hautsiak zeudelako. Zenbat arrautza-kaxa osatu ditu?



Idatzi ematen dituzun urratsak eta soluzioa.

Hautsiak ez zeuden arrautzak:  $200 - 14 = 186$

Osaturiko arrautza-kaxa kopurua =  $\frac{186}{6} = 31$

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra eta planteamendu okerra edo osatu gabea.
1	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasleak erantzun zuzena eman du (31), baina ez du behar adina urratsik idatzi edo ez du urratsik idatzi.</li> <li>Ikasleak planteamendu osoa eta zuzena egin du, baina ez du erantzun zuzena eman kalkuluetan akats bakarra egin duelako eta ez delako emaitza zuzenera iritsi.</li> </ul>
2	Ikasleak planteamendu osoa eta zuzena egin du, eta erantzun zuzena eman du (31).